

PROBLEMAK 1

- Mirenek 24 margo ditu kutxatilan, eta beste 12 etxean. Zenbat margo ditu guztira?

margo ditu guztira.

- Josebak 65 txapa zituen, baina lagun bati 27 eman dizkio. Zenbat txapa ditu orain?

txapa ditu orain.

- 36 ikasle joaten dira marrazketaeskolara. Lehengo hilean, ohi baino 12 ikasle gutxiago joan ziren. Zenbat ikasle joan ziren lehengo hilean?

ikasle joan ziren lehengo hilean.

- Elenak txikle bat eta karamelu bat erosi nahi ditu. Txikleak 60 zentimo balio du, eta karameluak, 35 zentimo. Zenbat diru behar du Elenak bi gauzak erosteko?

zentimo behar du Elenak.

- Haritzek 180 puntu lortu ditu ordenagailuko joko batean. Kepak, berriz, Haritzek baino 75 puntu gutxiago lortu ditu. Zenbat puntu lortu ditu Kepak?

puntu lortu ditu Kepak.